BERMEOKO UDALA
ERREGISTRO OROKORRA

ERREGISTRO ZENBAKIA S2014-03317 ERREGISTRO DATA 2014/04/03 08:43:53

TITULARRAREN DATUAK

IZENA JOSEBA ABIZENAK MARTOS SANCHEZ NAN 72311598N

ORDEZKARIAREN DATUAK

IZENA ABIZENAK NAN

GAIA FRACKING BURUZKO MOZIOA AURKEZTEN

ZEIN SAILETARAKO

ORIGINALA ID-IDAZKARITZA

KOPIAK AL-ALKATETZA

Fracking EZ Bizkaia! Eta Bermeotar talde anitz batek Udaleko Osoko Bilkurari aurkezten dion mozioa apurketa hidraulikoa (fracking) ikertzeko abian dauden baimenen eteteari buruz

Hego Euskal Herriko lau lurraldeetan eta inguruko beste lurralde batzuetan ere Fracking bidez atera nahi dute gasa. Sistema honetan zulo horizontal bat egiten da, bertan ura eta gai kimikoak presioan sartzen dira, presioak harriak apurtzen ditu eta harri arteko gas partikulak ateratzen dira.

Orain arte teknika hauek erabili diren zonaldeetan hainbat arazo sortu dira, esate baterako, edateko uraren kutsadura, mugimendu sismikoen agerpena, inguruaren okupazio altua eta honen hondatzea, edota putzuen inguruan bizi diren biztanleengan osasun arazoak.

Hainbat dokumentuk eta ikerketak arazo hauek baieztatu dituzte. Horrexegatik debekatu du Frantziak frackinga bere lurraldean.

Eusko Jaurlaritza eta Nafarroako Gobernua sistema hau ikertzeko baimenak ematen ari dira, bai lehorrean eta baita itsasoan ere, gure kostaldetik kilometro gutxira. Eusko Jaurlaritza SHESA bere enpresa publikoaren bidez ari da kudeatzen baimen horietako batzuk.

Arrazoi hauengatik, Udalbatza honetara aurkezten dugu akordio proposamen hau eztabaidatu eta onartzeko:

1. Eusko Jaurlaritzari eta Nafarroako Gobernuari eskatzen die Fracking sistema ikertzeko zundaketa baimen guztiak bertan behera lagatzeko. Gutun bidez jakinaraziko die erabaki hori.
2. EAE -ko Arartekoari, Eusko Jaurlaritzari, Espainiar Gobernuari eta Europar Arartekoari Geminis proiektua eta fracking proiektuen inguruan duten informazioa eskatuko zaie. Gutun bidez burutuko da.
3. Bermeo Fracking gabeko herri izendatzeko. Eta hau erakitsiko duen duen kartel bat jartzea herriko sarrera guztietan.
4. Bere eskura dauden baliabideak erabiliko ditu erabaki honen berri emateko eta herriari ere jakinaraziko dio. Gutun edo bando bitartez.

Erlkarteak:

Fracking EZ Bizkaia, Urdaibai bizirik, Hack.in#badakigu informatika elkartea, Basajaun elkarte ekologista

BERMEOko UDALA
3317 ZEN.
2014 APR 03
SARRERA IRAGARPENA

BERMEOn, MARTXOARENren 27an

Eta haien izenean JOSEBA MARTOS SANCHEZ

72311598N